ESTATUTUAK

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA ETA LEGE-ARAUBIDEA

1. artikulua.- ASOCIACIÓN NAVARRA DE BIBLIOTECARIAS Y BIBLIOTECARIOS – NAFARROAKO LIBURUZAINEN ELKARTEA (ASNABI) Erakunde Sindikal eta Enpresarialaren Erregistro Berezian izena eman zuen 1995eko abuztuaren 23an NA/164 zenbakia lortuz; gero, 2017ko urtarrilaren 17an, Elkarteen Erregistroan izena eman zuen 7982 zenbaki probintziala lortuz eta orain, Estatutu hauek aldatu dira Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoarekin eta garatzeko dituen xedapenekin bat etorriz.

Elkartea honako arauen mende egonen da: aipatutako Elkarteei buruzko Legea; Estatutu hauek beraiek (legearen aurkakoak ez badira); elkartearen gobernu organoek behar bezala hartutako erabakiak (Legearen edota Estatutuen aurkakoak ez badira) eta Nafarroako Gobernuak onartzen dituen erregelamenduzko xedapenak, azken horiek osagarriak soilik izanen diren arren.

ESTATUTOS

CAPÍTULO PRIMERO

DENOMINACIÓN Y NORMATIVA LEGAL

Artículo 1.- Los presentes Estatutos de la ASOCIACIÓN NAVARRA DE BIBLIOTECARIAS Y BIBLIOTECARIOS – NAFARROAKO LIBURUZAINEN ELKARTEA (ASNABI), inscrita en el Registro Especial de Organizaciones Sindicales y Empresariales nº NA/164 con fecha 23 de agosto de 1995, y posteriormente inscrita en el Registro de Asociaciones con el número provincial 7982 con fecha 17 de enero de 2017, han sido modificados de conformidad con lo establecido en la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, reguladora del Derecho de Asociación y demás disposiciones de desarrollo.

La Asociación se regirá por los preceptos de la citada Ley de Asociaciones, por los presentes Estatutos en cuanto no estén en contradicción con la Ley, por los acuerdos válidamente adoptados por sus órganos de gobierno, siempre que no sean contrarios a la Ley y/o a los Estatutos, y por las disposiciones reglamentarias que apruebe el Gobierno de Navarra, que solamente tendrán carácter supletorio.

ASNABI
ASOCIACIÓN NAVARRA DE BIBLIOTECARIAS Y BIBLIOTECARIOS
NAFARROAKO LIBURUZAINEN ELKARTEA

ELKARTEAREN HELBURUAK

2. artikulua.- Elkartearen HELBURUAK bereziki bi dira: kideak profesionalki garatzea eta Nafarroako Foru Komunitatean bere eremu profesionalari lotutako perspektiben eta errealitateen gainean kontzientzia handiagoa hartzen laguntzea; zehazkiago:

a) Elkarteko kideen etengabeko prestakuntza sustatzea.
b) Bibliotekonomia eta dokumentazioaren arloko lan baldintzak hobetzeko laguntza ematea.
c) Erakunde publikoen edota pribatuen eta kolektibo profesionalaren artean harremanetarako eta lankidetzarako bideak ezartzea.
d) Sektorearen errekonozimendu instituzionala eta soziala zaintzea, bere eginkizun eta ikusgarritasun profesionala sustatuz.
e) Bertze elkarte profesionalekin lankidetza sustatzea.
f) Bertze elkarte, erakunde eta instituzio ofizialen aurrean, gure kideen izenean ordezkari eta solaskide lanak egitea.
g) Nafarroako liburutegietako baliabideak ezagutzera ematea hobekiago probestuak izan daitezen, horretarako haien helburu eta jomugei zabalpen soziala emanez eta liburutegiak erabiliz integrazioa, elkartasuna eta tolerantziaren balioak sustatzen dituzten integrazio sozialerako tresna gisa.
h) Kontuan hartzea baita Nafarroako hizkuntza aniztasuna, eta berezkoa den hizkuntza eta kultura ondare horren kontserbazioa sustatzea gainontzeko hizkuntza eta kulturei errespetua erakutsiz.

Helburu horiek lortzeko, beti legezko betekizunak beteta, honako JARDUERA hauek eginen dira:

- Lan taldeen eraketa sustatzea sektoreko interes arlo desberdinekin lotutako ikerlanak, analisiak eta jarduera proposamenak egin ditzaten.

FINES DE LA ASOCIACIÓN

Artículo 2.- Los FINES de esta Asociación son principalmente dos: el desarrollo profesional de sus socias/os y propiciar una mayor toma de conciencia respecto de las perspectivas y realidades de su campo profesional en la Comunidad Foral de Navarra; en concreto:

a) Promover la formación continua de sus integrantes.
b) Contribuir a mejorar las condiciones laborales del sector bibliotecario y documentalista.
c) Establecer cauces de relación y colaboración entre las Instituciones públicas y /o privadas y el colectivo profesional.
d) Velar por el reconocimiento institucional y social del sector, promoviendo su labor y la visibilidad profesional.
e) Fomentar la colaboración con otras asociaciones profesionales.
f) Servir de interlocutor y representar a las personas asociadas ante organismos oficiales e instituciones y otras asociaciones.
g) Conducir a un mejor conocimiento y aprovechamiento de los recursos bibliotecarios navarros mediante la difusión social de los fines y objetivos, utilizando las bibliotecas como instrumentos de integración social que difunden valores como la integración, la solidaridad y la tolerancia.
h) Tener también en cuenta la pluralidad lingüística de Navarra y fomentar la conservación de su propio patrimonio lingüístico y cultural desde el respeto al resto de idiomas y culturas.

Para la consecución de dichos fines se llevarán a cabo, previo el cumplimiento de los requisitos legales establecidos, las siguientes ACTIVIDADES:

- Promover la creación de grupos de trabajo que lleven a cabo labores de investigación, análisis y propuesta de actividades en relación a las distintas áreas de interés del sector.

- Bazkideentzat, sektore profesional osoarentzat eta herritarrentzat oro har interesgarriak izan daitezkeen gaiei buruzko ikastaro, kongresu, jardunaldi eta abarrak antolatzea, dela Elkarte bultzatzaile gisa, dela bertze entitate batzuekin lankidetzan.
- Sektore desberdinetako enplegu eskaintzen inguruko jarraipen, analisi eta balorazioak egitea, hala badagokio, bazkideei ezagutzera emateko.
- Barne eta kanpo komunikazio dinamikak lantzea, alde batetik Elkarteak kideekin duen harremana eta bertzetik kideen artekoa arintzeko eta hobetzeko.
- Hedabideetan agerpena izatea, horrela Nafarroako biztanleriak liburutegien inguruan izanen duen gizarte kontzientzian eragina izateko, horren bitartez liburutegi berriak sortzen laguntzeko eta daudenen baldintzak hobetzeko.
- Bazkideentzat orientazio gisa eta baita lokarri modura erabiliko diren buletinak bidaltzea.
- Antzekoak zein antzekoak ez diren erakundeetako ordezkariekin aldizkako bilerak egitea, sektorea sustatzeko, bere balioa ezagutarazteko eta eremu ekonomiko, sozial eta kultural desberdinetan kokatzeko.
- Nafarroan euskararen erabilpenean eta normalizazioaren bidean pausoak emateko jarduera eta ekimenak egitea eta laguntzea, liburutegien bitartez, desberdintasun egoeran dauden gainontzeko kolektiboak, hala nola etorkinak, elbarriak, gizarte-bazterketa pairatzen dituzten pertsonak, etab.

Aurreko paragrafoan azaldutako jarduerak gorabehera, Elkarteak, bere xedeak betetzeko, honako hauek egin ahal izanen ditu:

- Bere eskumenen eremuan bertze edozein elkarte, federazio edo konfederaziori atxiki, propio jarduteko autonomiarik galdu gabe.
- Bere xedeak gauzatzeko edo helburu horrekin baliabideak lortzeko, edonolako eragiketak, izan komertzialak edo ez, zerbitzuak eta jarduera kolektiboak edo/eta edonolako jarduera ekonomikoak sustatzea eta garatzea.

- Organizar cursos, congresos, jornadas, etc. sobre temas de interés para quienes integran la Asociación, el sector profesional en su conjunto y la ciudadanía en general, bien como Asociación impulsora, bien como colaboradora de otras entidades.
- Realizar un seguimiento, análisis y valoración de las ofertas de empleo de los distintos sectores para, en su caso, darlas a conocer a las personas asociadas.
- Desarrollar dinámicas que agilicen la relación interna y externa de la Asociación con sus integrantes, así como la comunicación entre las mismas personas asociadas.
- Tener presencia en los medios de comunicación social a fin de contribuir a formar una conciencia ciudadana sobre la realidad bibliotecaria navarra que ayude a la creación de nuevas bibliotecas, así como a mejorar las ya existentes.
- Enviar boletines que sirvan de orientación y nexo de unión entre las personas asociadas.
- Mantener reuniones periódicas con representantes de entidades, tanto de carácter afín como de otra naturaleza, con el fin de promocionar el sector, dar a conocer su valor y posicionarlo en distintos ámbitos económicos, sociales y culturales.
- Orquestar campañas y actividades encaminadas a normalizar el uso del euskera en Navarra y a ayudar, a través de las bibliotecas, al resto de colectivos en situación de desigualdad, como inmigrantes, personas con discapacidad, personas en riesgo de exclusión social, etc.

Sin perjuicio de las actividades descritas en el apartado anterior, la Asociación, para el cumplimiento de sus fines, podrá:

- Adherirse a cualquier otra asociación, federación o confederación en el ámbito de sus competencias sin pérdida de su autonomía de actuación.
- Promover y desarrollar todas aquellas operaciones, sean o no comerciales, servicios y actividades colectivas, y demás actividades económicas de todo tipo, encaminadas a la realización de sus fines o a allegar recursos con ese objetivo.

- Edonolako ondasunak edozein titulurekin erostea eta edukitzea, eta mota guztietako ekimen eta kontratuak egitea.
- Edonolako ekintzak gauzatzea, beti ere Legeen edo Estatutuen arabera.

HELBIDE SOZIALA

3. artikulua.- Elkarte honen helbide nagusia hauxe izanen da: Yamaguchiko Liburutegi Publikoa, Yamaguchi plaza 12, 31008, Iruñea.

Elkarteak bertze lokal batzuk eduki ditzake Foru Komunitatean.

Elkartearen helbidea aldatzen bada eta horrek herria aldatzea badakar, Batzar Orokor bat egin beharko da Estatutuetan dagokion aldaketa egiteko. Hala ere, hori egitea ez da beharrezkoa izanen herri berean helbidea kale batetik bertzera aldatzen bada. Kasu horretan, Zuzendaritza Batzordeak helbide aldaketa erabaki eta gauzatzeko ahalmena izanen du.

LURRALDE EREMUA

4. artikulua.- Bere funtzioak garatzeko eremua batez ere Nafarroako Foru Komunitatea izanen da.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

5. artikulua.- Elkartea iraunkorra izateko eratu da, eta, VI. kapituluan erraten den bezala, Batzar Orokorrean hartutako erabaki bidez baino ezinen da desegin, edo legeetan xedatutako arrazoiren batengatik.

Elkartearen funtzionamendua eta barne antolamendua demokratikoak izanen dira, eta aniztasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izanen dira elkartzeko oinarrizko eskubideetako edozein betetzen ez dituzten itun, estatutu xedapen eta erabakiak.

- Adquirir y poseer bienes de todas clases y por cualquier título, así como celebrar actos y contratos de todo género.
- Ejercitar toda clase de acciones conforme a las Leyes o a sus Estatutos.

DOMICILIO SOCIAL

Artículo 3.- El domicilio principal de esta Asociación será: la Biblioteca Pública de Yamaguchi, Plaza de Yamaguchi 12, 31008, Pamplona.

La Asociación podrá disponer de otros locales en el ámbito de la Comunidad Foral.

Cualquier variación del domicilio de la Asociación que implique cambio de localidad requerirá la celebración de una Asamblea General para realizar la oportuna modificación estatutaria. Sin embargo, esta no será necesaria en el caso de una variación del domicilio de una calle a otra en una misma localidad. En este caso la Junta Directiva tendrá la potestad de acordar y ejecutar el cambio domiciliario.

ÁMBITO TERRITORIAL

Artículo 4.- El ámbito territorial en el que desarrollará principalmente sus funciones comprende la Comunidad Foral de Navarra.

DURACIÓN Y CARÁCTER DEMOCRÁTICO

Artículo 5.- La Asociación se constituye con carácter permanente, y solo se disolverá por acuerdo de la Asamblea General según lo dispuesto en el Capítulo VI o por cualquiera de las causas previstas en las Leyes.

La organización interna y el funcionamiento de la Asociación deberán ser democráticos, con pleno respeto al pluralismo. Serán nulos de pleno derecho los pactos, disposiciones estatutarias y acuerdos que desconozcan cualquiera de los aspectos del derecho fundamental de asociación.

BIGARREN KAPITULUA

AGINTE ETA ADMINISTRAZIO ORGANOAK

6. artikulua.- Elkartearen agintea eta administrazioa organo hauen esku egonen da:

- Bazkideen Batzar Orokorra, organo goren gisa.
- Zuzendaritza Batzordea, zuzendaritza organo iraunkor gisa.

BATZAR OROKORRA

7. artikulua.- Batzar Orokorra bazkide guztiek osatzen dute, eta organo honen bidez adierazten dira bazkideen nahiak.

Batzar Orokorraren ahalmenak dira:

a) Elkartearen jardute plan orokorra onartzea.
b) Aurreko urteko Jardueren Memoria, balantzeak eta kontuak eta uneko urtealdiaren aurrekontua aztertzea eta onartzea.
c) Zuzendaritza Batzordea izendatzea eta kargutik kentzea.
d) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa ezagutzea, eta dagokionean haren jarduerak berrestea edo gaitzestea.
e) Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
f) Estatutuak aldatzea.
g) Elkartea desegitea.
h) Bertze organo sozialen bati esleitu gabeko bertze edozein eskumen izatea.

8. artikulua.- Batzar Orokorra ohiko edo/eta ezohiko saioetan bilduko da:

- Batzar Orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura, lehendabiziko hilabeteetan, 7. artikuluaren a), b), c) eta d) ataletan xedatutako erabakiak hartze aldera.

CAPÍTULO SEGUNDO

ÓRGANOS DE GOBIERNO Y ADMINISTRACIÓN

Artículo 6.- El gobierno y administración de la Asociación estarán a cargo de los siguientes órganos:

- La Asamblea General de Socias/os, como órgano supremo.
- La Junta Directiva, como órgano de dirección permanente.

LA ASAMBLEA GENERAL

Artículo 7.- La Asamblea General, integrada por la totalidad de personas asociadas, es el órgano de expresión de la voluntad de estas.

Son facultades de la Asamblea General:

a) Aprobar el plan general de actuación de la asociación.
b) El examen y la aprobación de la Memoria de Actividades, los balances y las cuentas del ejercicio anterior y el Presupuesto de la anualidad corriente.
c) La elección y el cese de la Junta Directiva.
d) Conocer la gestión de la Junta Directiva, ratificando o censurando en lo que proceda sus actuaciones.
e) La adopción del acuerdo de separación definitiva de las personas asociadas.
f) La modificación de estatutos.
g) La disolución de la asociación.
h) Cualquier otra competencia no atribuida a otro órgano social.

Artículo 8.- La Asamblea General se reunirá en sesiones ordinarias y/o extraordinarias:

- La Asamblea General deberá ser convocada en sesión ordinaria al menos una vez al año, en los primeros meses, a fin de adoptar los acuerdos previstos en el artículo 7 a), b), c) y d).

- Batzar Orokorra Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duenean bilduko da ezohiko bilkuran, bere ekimenez edota boto eskubidea duten bazkideen herenak hala eskatu duelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira.
- Batzar Orokorra biltzeko deialdiak idatziz egin beharko dira, eta bilkuren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik Batzarra egiteko ezarritako egunaren artean gutxienez hamabost egun natural pasatu beharko dira.
- Batzar Orokorrak, bai ohikoak zein ezohikoak, balio osoz eratuta geratuko dira lehendakaria, idazkaria, (edo haien ordezkoak) eta botoa emateko eskubidea duten bazkideak bertaratzen direnean, kopurua edozein delarik ere.

9. artikulua.- Batzar Orokorraren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz botoa emateko eskubidea duten kide ordezkatuen baiezko botoek honakoen batuketa gainditzen dutenean: ezezkoak, txuriak, abstentzioak eta boto baliogabeak. Aldiz, Estatutuak aldatzeari, ondasunen jabetze edo besterentzeari eta ordezkaritza taldeko kideen ordainketari erreferentzia egiten dieten erabakiak, botoen bi herenen gehiengo kualifikatuarekin hartuko dira.

10. artikulua.- Bazkideek bertze edozein bazkideri eman ahal izanen diote beraiek ordezkatzeko ahalmena Batzar Orokorretara joateko, baina pertsona batek ezinen du inola ere Elkarteko bost bazkide baino gehiagoren ordezkaritza izan. Ordezkaritza hori emateko baimena idatziz egin beharko da, eta idazkariak Batzarra hasi aurretik eduki beharko du.

- La Asamblea General se reunirá en sesión extraordinaria cuando así lo acuerde la Junta Directiva, bien por propia iniciativa, o porque lo solicite un tercio de las personas asociadas con derecho a voto, indicando los motivos y fin de la reunión.
- Las convocatorias de las Asambleas Generales se realizarán por escrito expresando el lugar, día y hora de la reunión, así como el orden del día con expresión concreta de los asuntos a tratar. Entre la convocatoria y el día señalado para la celebración de la Asamblea habrán de mediar al menos quince días naturales.
- Las Asambleas Generales, tanto ordinarias como extraordinarias, quedarán válidamente constituidas cuando concurran a ella la/el presidenta/e, la/el secretaria/o (o quienes les sustituyan) y las/os integrantes de la Asociación con derecho a voto, cualquiera que sea su número.

Artículo 9.- Los acuerdos de la Asamblea General se adoptarán por mayoría simple de las personas presentes o representadas con derecho a voto, es decir, cuando los votos afirmativos superen a la suma de los negativos, blancos, abstenciones y nulos. Los acuerdos relativos a la modificación de Estatutos, disposición o enajenación de bienes y remuneración de los miembros del órgano de representación se adoptarán por mayoría cualificada de dos tercios de los votos.

Artículo 10.- Las personas asociadas podrán otorgar su representación a cualquier otra, a los efectos de asistir a las Asambleas Generales, sin que en ningún caso una persona pueda ostentar la delegación de más de cinco miembros de la Asociación. Tal representación se otorgará por escrito, y deberá obrar en poder de la Secretaria o Secretario antes de dar inicio la sesión de la Asamblea.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

11. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea da Estatutuetako xedapenei eta Batzar Orokorraren jarraibideei jarraituz Elkartearen interesak kudeatzen eta ordezkatzen dituen ordezkaritza organoa. Bazkide titularrek baino ezinen dute osatu Zuzendaritza Batzordea.

Zuzendaritza Batzordea honakoek osatuko dute:

- Lehendakaria
- Lehendakariordea
- Idazkaria
- Diruzaina
- Bokala(k) (gutxienez 1, gehienez 5)

Zuzendaritza Batzordean, ahal dela, Elkartearen sektore guztiak egonen dira ordezkatuta.

12. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide bat bilera horietara hiru aldiz jarraian, edo tartekatuta lau aldiz, agertzen ez bada, kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek arrazoituak izan ezean.

13. artikulua.- Batzar Orokorrak hautatuko du Zuzendaritza Batzordea eta hura BI URTERAKO izendatuko da, baldin eta Batzordeak berak ez dion horri espresuki uko egiten. Behin baino gehiagotan hautatua izateko aukera izanen du.

14. artikulua.- Honako baldintzak bete beharko dira Zuzendaritza Batzordeko kide izateko:

- Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea eta indarrean dauden legeetan ezarritako bateraezintasun arrazoirik ez edukitzea.
- Kide titularra izatea.

LA JUNTA DIRECTIVA

Artículo 11.- La Junta Directiva es el órgano de representación que gestiona y representa los intereses de la asociación, de acuerdo con las disposiciones estatutarias y directrices de la Asamblea General. Sólo podrán formar parte de la Junta Directiva las personas que ostenten la condición de socia/o titular.

La Junta Directiva estará integrada por:

- Presidenta/e
- Vicepresidenta/e
- Secretaria/o
- Tesorera/o
- Vocal(es) (mínimo 1, máximo 5)

Siempre que sea posible en la Junta Directiva estarán representados los diferentes sectores de la actividad de la Asociación.

Artículo 12.- La falta de asistencia a las reuniones señaladas, de las/os miembros de la Junta Directiva, durante tres veces consecutivas o cuatro alternas sin causa justificada, dará lugar al cese en el cargo respectivo.

Artículo 13.- La Junta Directiva se elegirá en Asamblea General y durará un PERIODO DE DOS AÑOS, salvo revocación expresa de aquella, pudiendo ser objeto de reelección.

Artículo 14.- Para pertenecer a la Junta Directiva serán requisitos indispensables:

- Ser mayor de edad, estar en pleno uso de los derechos civiles y no estar incurso en los motivos de incompatibilidad establecidos en la legislación vigente.
- Ser socio/a titular.

Bozketa librea izanen da, eta, beharrezkotzat jotzen bada, sekretua. Bi hautagaitzen edo gehiagoren artean berdinketa egonez gero, bigarren bozketa bat eginen da. Hontakoan berriro ere berdinketa suertatzen bada, eremu profesionalen araberako ordezkaritza hartuko da kontuan, eta hala ere berdinketa egonez gero, Elkartean antzinatasunik handiena duena hautatuko da.

15. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek beren kargua utziko dute honelakorik gertatuz gero:

a) Agintaldia bukatzea.
b) Karguari beren borondatez uko egitea. Hori idatziz jakinarazi beharko zaio Zuzendaritza Batzordeari.
c) Bazkide izateari uztea edo kargua betetzeko ezintasun arrazoiak izatera pasatzea.
d) Estatutu hauetako 13. artikulua aplikatuz, Batzar Orokorrak kargua baliogabetzen diola erabakitzea.
e) Hiltzea.

Bertzalde, a) atalean xedatutakoa baldin bada kargua uzteko arrazoia, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo Batzar Orokorra egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.

Halaber, b), c), d) eta e) kasuetan, hutsik gelditutako kargua betetzeko edo behin-behineko ordezkapen bat egiteko (bai bertaratze ezagatik zein gaixotasun arrazoiengatik) Zuzendaritza Batzordeak norbait behin-behinean izendatuko du, eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Onesten badu, behar diren kargu izendapenak eginen ditu.

16. artikulua.- Organo honen osaeran egindako aldaketa guztien berri emango zaio Elkarteen Erregistroari.

La votación será libre y, si se considera necesario, secreta. En caso de empate entre dos o más candidaturas se procederá a una nueva votación. Si en esta segunda votación se reprodujera el empate, resultará elegida la que cuente con mayor representación por ámbitos profesionales y, a igual representación, se tendrá en cuenta la antigüedad en la Asociación.

Artículo 15.- Las personas que integran la Junta Directiva cesarán en los siguientes casos:

a) Expiración del plazo de mandato.
b) Renuncia voluntaria, que deberá ser comunicada por escrito a la Junta Directiva.
c) Cese en la condición de socio/a titular o incursión en causa de incapacidad.
d) Revocación acordada por la Asamblea General en aplicación de lo previsto en el artículo 13 de los presentes Estatutos.
e) Fallecimiento.

Cuando se produzca el cese por la causa prevista en el apartado a), quienes componen la Junta Directiva continuarán en funciones hasta la celebración de la primera Asamblea General, que procederá a la elección de los nuevos cargos.

En los supuestos b), c), d) y e), la propia Junta Directiva proveerá la vacante o sustitución temporal por ausencia o enfermedad mediante nombramiento provisional, que será sometido a la Asamblea General para su revocación o ratificación, procediéndose, en este último caso, a la designación correspondiente.

Artículo 16.- Todas las modificaciones en la composición de este órgano serán comunicadas al Registro de Asociaciones.

17. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak honakoak dira:

a) Elkartearen kudeaketa arrunta, ekonomikoa eta administratiboa gidatzea, Batzar Orokorraren jarraibideekin bat etorriz, eta zer kontratu eta egintza izanen diren erabakitzea.
b) Gastuen eta sarreren urteko aurrekontua, Jarduera txostena, Balantzeak eta Urteko Kontuak lantzea eta Batzar Orokorrari aurkeztea, hark onar ditzan.
c) Batzar Orokorraren bilkuretako gai zerrendak egitea, ohiko nahiz ezohiko Batzar Orokorretarako deialdiak egitea, eta bertan hartutako erabakiak betetzea.
d) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horien inguruan hartu beharreko neurriak hartzea.
e) Bazkidegai berriak onartzeari buruz erabakitzea eta Batzarrari jakinaraztea.
f) Elkartearen jarduera berezietarako edo epe motzerako sortu daitezkeen komisioak osatu edota onartzea eta koordinatzea, beti haiek eginen dituzten jardueren berri izanen duelarik.
g) Elkartearen Barne Funtzionamendurako Araudia (BFA) kideei ezagutzera ematea.
h) Elkartearen ondasunak administratzea eta, ondasunoi dagokienez, Batzar Orokorrari berariaz esleitu ez zaizkion erabaki guztiak hartzea.
i) Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta Estatutuetako hutsuneak betetzea, beti ere elkarteen inguruan indarrean dauden legeekin bat etorriz.
j) Elkartearen xedeak betetzeko beharrezkoa den bertze edozein eginkizun betetzea, beti ere ez badagokio Batzar Orokorrari edo haren berariazko baimenik behar ez badu.

Artículo 17.- Las funciones de la Junta Directiva son:

a) Dirigir la gestión ordinaria, económica y administrativa de la Asociación, de acuerdo con las directrices de la Asamblea General y bajo su control, acordando realizar los oportunos contratos y actos.
b) Elaborar y someter a la aprobación de la Asamblea General el presupuesto anual de gastos e ingresos, así como la Memoria de Actividades y los Balances y Cuentas Anuales.
c) Confeccionar el Orden del Día de las reuniones de la Asamblea General, así como acordar la convocatoria de las Asambleas Generales ordinarias y extraordinarias y ejecutar sus acuerdos.
d) Atender las propuestas o sugerencias que formulen las personas asociadas, adoptando al respecto, las medidas necesarias.
e) Resolver sobre posibles nuevas incorporaciones y comunicarlo a la Asamblea.
f) Crear y/o aprobar y coordinar las distintas comisiones que puedan surgir para gestionar actividades específicas o de corto plazo de la Asociación, estando siempre informada de las actividades que estas realicen.
g) Dar a conocer a quienes integran ASNABI el Reglamento de Funcionamiento Interno (RFI) de la asociación.
h) Administrar los bienes de la asociación y adoptar respecto de los mismos todas las decisiones que no están expresamente reservadas a la Asamblea General.
i) Interpretar los preceptos contenidos en estos Estatutos y cubrir sus lagunas, sometiéndose siempre a la normativa legal vigente en materia de asociaciones.
j) Cualquier otra función necesaria para dar cumplimiento a los fines de la Asociación, siempre que no correspondan a la Asamblea General o requieran autorización expresa de la misma.

18.-artikulua.- Zuzendaritza Batzordea gutxienez urtean behin bilduko da, gutxienez pertsona batek deialdia eginda, eta akordioak edo erabakiak bilkuran daudenen gehiengo soilez hartuko dira (bileran, gutxienez Zuzendaritza Batzordea osatzen dutenen erdiak egon beharko dira); berdinketarik egonez gero, lehendakariaren kalitateko botoa izanen da erabakigarri, bai hau zein Idazkaria (edo haien ordezkoak) beti egon beharko baitira presente Zuzendaritza Batzordearen bileretan.

Komisioetako koordinatzaileek Zuzendaritza Batzordearen bilkuretara joateko aukera izanen dute, haiek hala eskatuta edo joateko deitu dietelako. Beren jarduera alorrari lotutako gaietan hitza izanen dute, baina botorik ez.

Idazkariak bileraren aktak jasoko ditu.

Artículo 18.- La Junta Directiva deberá reunirse al menos una vez al año convocada al menos por una persona y los acuerdos o decisiones se adoptarán por mayoría simple de las/os asistentes a la sesión (que serán, al menos, la mitad de quienes compogan la Junta Directiva), dirimiendo los empates que, en su caso, puedan producirse la/el Presidenta/e con voto de calidad, que junto a la/el Secretaria/o (o quienes les sustituyan) deberán estar siempre presentes en las reuniones de la Junta Directiva.

Podrán asistir, bien por iniciativa propia comunicada a la Junta Directiva o bien cuando se les convoque, las personas que coordinan las comisiones. Tendrán voz pero no voto en los asuntos relacionados con su área de actividad.

La Secretaria o Secretario levantará acta de las sesiones.

KOMISIOAK

19. artikulua.- Komisioak eratu ahal izanen dira beren irismen orokorragatik tratamendu espezifikoa, dedikazio berezia eta etengabea edo antolamendu eta azpiegitura egokia behar duten helburu konkretuak lortzeko helburuz.

20. artikulua.- Komisioak Zuzendaritza Batzordeak berak edo gutxienez bi kidek eskatuta eratuko dira, akordio baten bitartez, zeinak batzordearen izenak eta helburu konkretuak jasoko dituen.

21. artikulua.- Behin bere eraketa onartuta, Barne Funtzionamendurako Araudiaren (BFA) arabera arautuko dira, eta urtero jardueren urteko txostena aurkeztuko diote Zuzendaritza Batzordeari.

22. artikulua.- Edozein bazkidek sortzen diren komisioetan parte hartzeko aukera izanen du, eta, nolanahi ere, Zuzendaritza Batzordeak ahalmena izanen du, egoki ikusiz gero, edozein komisioetan aholkulari gisa bazkideak ez diren profesionalen parte hartzea sustatzeko edo onartzeko.

COMISIONES

Artículo 19.- Podrán constituirse comisiones para conseguir objetivos concretos que por su alcance general merezcan un tratamiento específico, una especial y permanente dedicación, o una organización e infraestructura adecuada.

Artículo 20.- Las comisiones se constituirán a iniciativa de la Junta o a petición de un mínimo de dos socias/os, mediante acuerdo en el que se recogerán las denominaciones y objetivos de las mismas.

Artículo 21.- Una vez aprobada su constitución, se regirán de acuerdo al Reglamento de Funcionamiento Interno (RFI) y presentarán un informe anual de actividad a la Junta Directiva.

Artículo 22.- Cualquier integrante de ASNABI podrá formar parte de las comisiones que se creen y, en todo caso y si lo estima oportuno, la Junta Directiva podrá promover y/o aceptar la participación en dichas comisiones de profesionales externas a la Asociación para que desarrollen una función asesora.

HIRUGARREN KAPITULUA
BAZKIDEAK

23. artikulua.- Elkarteko bazkide izateko aukera izanen dute adin nagusiko pertsona fisikoek, jarduteko gaitasuna dutenek (zuzenbidearen jardunerako inongo muga legalik ez badaukate), Elkartearen xedeen garapenean interesa dutenek eta hauetako baldintzaren bat betetzen dutenek:

- Prestakuntza edo titulazio espezifikoa dutenek bibliotekonomia eta dokumentazioan.
- Elkartean sartzeko eskaera egiten den egunean, diziplina horietako araututako edozein gradu ikasketa espezifikoak egiten ari diren egiaztagiria aurkezten dutenek.
- Elkartean sartzeko eskaera egiten den egunean, artxibo eta dokumentuen zein liburutegien eta dokumentazio zentroen kudeaketan zeregin tekniko-profesionalak egiten ari diren egiaztagiria aurkezten dutenek.

24. artikulua.- Pertsona juridikoek, eskumena duen organoak bere baitan hartutako erabaki baliodunaren kopia aurkeztu beharko dute, eta bertan adierazi bai bazkidetzeko borondatea, bai beren izenean arituko den pertsonaren izendapena.

25. artikulua.- Elkarteko kide izateko idatzizko eskaria aurkeztu beharko da, Elkarteari zuzenduta. Zuzendaritza Batzordeak ebatziko du onartzea edo ezeztatzea.

26. artikulua.- Honelako bazkideak egon daitezke:

- Bazkide titularra:

  Bazkide titularrak izanen dira 23. artikuluan xedatutako baldintza guztiak betetzen dituzten eta Barne Funtzionamendurako Araudian (BFA) ezarritako kuotak ordaintzen dituzten pertsona fisiko guztiak. Eskubide osoko bazkideak izanen dira, Elkartearen Batzarretan ahotsa eta botoa izanen dute, eta Zuzendaritza Batzordeko kide izateko aukera izanen dute.

CAPÍTULO TERCERO
LAS/OS SOCIAS/OS

Artículo 23.- Podrán pertenecer a la Asociación aquellas personas físicas, mayores de edad y con capacidad de obrar (que no estén incursas en ninguna limitación legal para el ejercicio del derecho), que tengan interés en el desarrollo de los fines de la Asociación y que reúnan alguna de las condiciones siguientes:

- Tener formación o titulación específica en biblioteconomía y documentación.
- Acreditar estar cursando estudios o formación específica en cualquiera de los grados formativos reglados de estas disciplinas a la fecha de solicitud de incorporación a la Asociación.
- Estar desarrollando, en el momento de solicitar el ingreso en la Asociación, funciones técnico-profesionales en la gestión de archivos y documentos, bibliotecas y/o centros de documentación.

Artículo 24.- Las personas jurídicas deberán aportar copia del acuerdo válidamente adoptado en su seno por el órgano competente para ello, y manifestar en él su voluntad asociativa, así como la designación de quien por ellas actúe.

Artículo 25.- Para pertenecer a ASNABI será precisa una solicitud por escrito dirigida a la Asociación. La Junta Directiva resolverá sobre su admisión o inadmisión.

Artículo 26.- Quienes integren ASNABI podrán ser:

- Socia/o titular:

  Tendrán tal condición las personas físicas que, cumpliendo los requisitos previstos en el artículo 23, abonen las cuotas establecidas en el Reglamento de Funcionamiento Interno (RFI). Serán socias/os de pleno derecho con voz y voto en las Asambleas de la Asociación, y podrán acceder a la Junta Directiva.

- Bazkide instituzionala:

  Bazkide instituzionalak izanen dira 24. artikuluan xedatutako baldintza guztiak betetzen dituzten eta Elkartearen xedeetan laguntza instituzionala eta ekonomikoa emateko interesa duten liburutegi eta dokumentazio zentroen arloetako erakunde guztiak.

  Bazkide instituzionalek, berariaz izendatutako ordezkari bat edo biren bitartez, Elkartearen Batzarretako erabakietan parte hartu ahal izanen dute, ahotsarekin baina botorik gabe, ez baita interes instituzionalen menpe erori nahi, eta Zuzendaritza Batzorderako hautatuak izateko aukerarik izan gabe, aipaturiko arrazoi beragatik.

- Bazkide atxikia:

  Bazkide atxikiak izanen dira, 23. artikuluan xedatutako baldintza guztiak bete gabe, Elkartearen xedeak lortzen laguntzeko Elkarteari atxiki nahi zaizkion pertsona fisiko guztiak.

  Bazkide atxikiek Elkartearen Batzarretako erabakietan parte hartu ahal izanen dute, ahotsarekin baina botorik gabe, Elkartearen profesionaltasuna mantendu nahi baita, eta Zuzendaritza Batzorderako hautatuak izateko aukerarik izan gabe, aipaturiko arrazoi beragatik.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

27. artikulua.- Bazkide guztiek eskubide hauek dituzte:

- Elkartearen aginte eta ordezkaritza organoen osaerari, elkartearen kontuen egoerari eta elkartearen jarduerari buruzko informazioa jasotzekoa.
- Elkarteko bertze bazkideen nortasunaren berri edozein unetan izatekoa, datu pertsonalak babesteko arautegian xedatzen denaren arabera.
- Batzar Orokorretarako deiak jaso, horietara joan eta Estatutu hauetako 26. artikuluan xedatutakoari

- Socia/o institucional:

  Tendrán tal condición, cumpliendo los requisitos previstos en el artículo 24, todas aquellas entidades del ámbito de las bibliotecas y centros de documentación interesados en prestar apoyo institucional y económico a los fines de la Asociación.

  Las instituciones asociadas podrán participar, con voz pero sin voto, pues se pretende no caer en intereses institucionales, en las deliberaciones de las asambleas generales de la Asociación, a través de una o dos personas designadas como representantes que no serán elegibles para ocupar cargos en la Junta Directiva por el motivo antes mencionado.

- Socia/o adherida/o:

  Tendrán tal condición las personas físicas que, no cumpliendo con los requisitos previstos en el artículo 23, deseen adherirse a la Asociación para coadyuvar al cumplimiento de sus fines.

  Los y las socias adheridas podrán participar, con voz pero sin voto, pues se pretende conservar el carácter profesional de la Asociación, en las deliberaciones de las asambleas generales de la Asociación, pero no serán elegibles para ocupar cargos en la Junta Directiva por el motivo antes mencionado.

DERECHOS Y DEBERES DE LAS/OS SOCIAS/OS

Artículo 27.- Toda persona asociada tiene derecho a:

- Ser informada acerca de la composición de los órganos de gobierno y representación de la asociación, de su estado de cuentas y del desarrollo de su actividad.
- Conocer, en cualquier momento, la identidad de quienes integran la Asociación, en los términos previstos en la normativa de protección de datos de carácter personal.
- Ser convocada a las Asambleas Generales, asistir a ellas y ejercitar sus derechos ajustándose a lo

jarraitutako eskubideak erabiltzekoa, eta eskubide horiek bertze bazkide batzuen esku utzi ahal izatekoa.
- Indarrean dauden legeetan xedatutako Bazkideen fitxategian agertzekoa.
- Zuzendaritza Batzordeari iradokizunak egitekoa Elkartearen helburuak hobeki betetze aldera.
- Estatutuen eta, egonez gero, Barne Funtzionamendurako Araudiaren (BFA) ale bana edukitzekoa, eta zuzendaritza organoei eskakizunak eta kexak aurkeztekoa.
- Elkartearen jardueretan parte hartzekoa.
- Ekimen sozial kolektiboetan parte hartzekoa.
- Elkartearen organoek hartutako erabakien gaineko informazioa jasotzekoa.
- Balizko diziplinazko neurriak ezarri aurretik informatua izatekoa eta bere ikuspuntua azaltzeko aukera izatea, neurri horiek aplikatu baino lehen.
- Edozein unetan baja ematekoa. Hala ere, hartu bai baina bete gabe dituzten konpromisoak bete beharko dira.

28. artikulua.- Bazkide guztiek betebehar hauek dituzte:

- Elkartearen helburuekin bat etortzea eta helburu horiek betetzen laguntzea.
- Portaera eta jarrera etikoarekin, Elkarteari izen ona eta ospea ematen laguntzea.
- Estatutu hauek eta Elkartearen aginte organoek balioz hartutako erabakiei men egitea eta erabakiok betetzea.
- Kuotak, derramak eta Barne Funtzionamendurako Araudiaren (BFA) arabera bazkide bakoitzari dagozkion bertzelako ekarpenak garaiz eta behar bezala ordaintzea.
- Batzar guztietara joatea, dela pertsonalki dela bertze bazkide batek ordezkatuta.
- Idazkaritzari bizileku nahiz lantoki aldaketak edo bazkide gisa norberak duen egoerari eragiten dion edozein aldaketa jakinaraztea.
- Estatutuetatik eratorritako bertzelako betebeharrak betetzea.

establecido en el art. 26 de los presentes Estatutos, pudiendo conferir, a tal efecto, su representación a otras personas asociadas.
- Figurar en el fichero de Socias/os previsto en la legislación vigente.
- Hacer sugerencias a la Junta Directiva en orden al mejor cumplimiento de los fines de la Asociación.
- Poseer un ejemplar de los Estatutos y del Reglamento de Funcionamiento Interno (RFI), si lo hubiere, y presentar solicitudes y quejas ante los órganos directivos.
- Participar en las actividades de la Asociación.
- Participar en los actos sociales colectivos.
- Recibir información sobre los acuerdos adoptados por los órganos de la Asociación.
- Ser informada de las causas que motiven posibles medidas disciplinarias y poder exponer su punto de vista antes de hacer efectivas dichas medidas.
- Darse de baja en cualquier momento, sin perjuicio de los compromisos adquiridos pendientes de cumplimiento.

Artículo 28.- Toda persona asociada tiene el deber de:

- Compartir las finalidades de la asociación y colaborar en su consecución.
- Contribuir con su comportamiento y actitud ética al buen nombre y prestigio de la Asociación.
- Acatar y cumplir los presentes Estatutos y los acuerdos válidamente adoptados por los órganos de gobierno de la Asociación.
- Pagar puntual y debidamente las cuotas, derramas y otras aportaciones que, con arreglo al Reglamento de Funcionamiento Interno (RFI), puedan corresponderle.
- Acudir a todas las asambleas personalmente o bien representada por otra persona asociada.
- Comunicar a la Secretaría los cambios de domicilio o de centro de trabajo, o de las incidencias que afecten a su situación como persona asociada.
- Cumplir el resto de las obligaciones que resulten de los Estatutos.

BAZKIDE IZATEARI UZTEA

29. artikulua.- Bazkide izaera honelako arrazoiren batengatik galduko da:

- Bazkidea hiltzearen ondorioz, pertsona fisikoa bada, edo erakundearen desagerperna gertatzen bada, pertsona juridikoen kasuan.
- Bazkideak borondatezko baja eskatuta, idatziz eta gutxienez baja ematearen eguna baino hamar egun lehenago Elkarteari jakinaraziz.
- Betebehar ekonomikoak betetzen ez direnean (kideak Elkarteari zor dion kuota ordaintzeari utziz gero). Kasu honetan, pertsonari ordainketa ezaren berri emanen zaio eta ordaindu gabe jarraituko balu, zuzenean baja emanen zaio.
- Elkartearen Estatutuak edo araudiak betetzen ez direnean, Batzarraren oniritziarekin. Aldez aurretik egitatea pertsona interesdunari jakinaraziko zaio eta hala behar bada, gaia Batzarrera eramanen da.

PÉRDIDA DE LA CONDICIÓN DE SOCIA/O

Artículo 29.- La condición de socia/o se perderá en los casos siguientes:

- Por fallecimiento, en personas físicas, o por disolución, en las personas jurídicas.

- Por baja voluntaria, que deberá formularse por escrito a la Asociación con una antelación mínima de diez días a la fecha de baja.
- Por incumplimiento de las obligaciones económicas (si se deja de abonar a la Asociación la cuota correspondiente). En este caso, se comunicará el impago a la persona socia y si el mismo persistiera, se prodecerá a darle de baja.
- Por incumplimiento de los Estatutos o reglamentos de la Asociación, con aprobación de la Asamblea. Previamente se comunicarán los hechos a la persona interesada y en su caso, se llevará el tema a Asamblea.

LAUGARREN KAPITULUA

ONDARE SOZIALA ETA AURREKONTU ERREGIMENA

30. artikulua.- Elkarteak ez du sorrera-ondarerik.

31. artikulua.- Elkarteak, bere xedeak eta jarduerak aurrera eramateko, baliabide ekonomiko hauek aurreikusten ditu:

- Ondare ekarpenak.
- Bazkide kuotak, bai arruntak zein bereziak.

- Elkartearen ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak, eta legez jasotzen dituen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
- Zuzendaritza Batzordeak Estatutuen helburuak lortzeko egin beharrekotzat jotzen dituen jarduera zilegietatik datozen diru-sarrerak.

32. artikulua.- Elkartearen ekitaldia eta baita ekitaldi ekonomikoa urtebetekoa izanen da, eta urte bakoitzeko abenduaren 31an itxiko da.

33. artikulua.- Jarduera ekonomikoak egiteagatik elkarteak lortutako irabaziak, zerbitzuak ematea barne, bere helburuak betetzeko baino ez dira erabili beharko. Inola ere ezinen dira bazkideen artean banatu, ez eta haien ezkontideen edota haiekin antzeko afektibitate harremanean bizi diren pertsonen artean, ezta haien senideen artean ere. Ezinen zaizkie, halaber, irabazi-asmoa duten pertsona juridiko edo fisikoei doan eman.

CAPÍTULO CUARTO

PATRIMONIO SOCIAL Y RÉGIMEN PRESUPUESTARIO

Artículo 30.- La Asociación no dispone de patrimonio fundacional.

Artículo 31.- Los recursos económicos previstos por la Asociación para el desarrollo de sus fines y actividades serán los siguientes:

- Las aportaciones patrimoniales.
- Las cuotas de las/os socias/os, tanto periódicas como extraordinarias.
- Los productos de los bienes y derechos que le correspondan, así como las subvenciones, legados y donaciones que pueda recibir en forma legal.
- Los ingresos que obtenga la Asociación mediante las actividades lícitas que acuerde realizar la Junta Directiva, siempre dentro de los fines estatutarios.

Artículo 32.- El ejercicio asociativo y económico será anual y su cierre tendrá lugar el día 31 de diciembre de cada año.

Artículo 33.- Los beneficios obtenidos por la asociación, derivados del ejercicio de actividades económicas, incluidas las prestaciones de servicios, deberán destinarse, exclusivamente, al cumplimiento de sus fines, sin que quepa en ningún caso su reparto entre las/os asociadas/os ni entre sus cónyuges o personas que convivan con aquéllas/os con análoga relación de afectividad, ni entre sus parientes, ni su cesión gratuita a personas físicas o jurídicas con interés lucrativo.

BOSGARREN KAPITULUA
ESTATUTUAK ALDATZEA

34. artikulua.- Behin aldaketa proposamena idatzita eta Zuzendaritza Batzordeak onartuta, Zuzendaritza Batzordeak hurrengo Batzar Orokorreko gai zerrendan sartzea erabakiko du.

35. artikulua.- Zuzenketak proposatzeko aukera egonen da, bai banaka egindakoak zein taldekakoak, idatziz aurkeztuko dira eta proposatzen den aldaketaren testu berria aurkeztu beharko da. Zuzenketak bozkatu eta gero, Batzar Orokorrak Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du.

36. artikulua.- Estatutuen aldaketa Batzar Orokorrean onartu beharko da, eta Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatzen denetik aurrera baino ez du eragina izanen hirugarrenengan.

SEIGARREN KAPITULUA
ELKARTEAREN DESEGITEA ETA ONDARE SOZIALAREN ZERTARAKOA

37. artikulua.- Elkartea honako kasuengatik deseginen da:

- Bazkideek hala nahi dutelako, Batzar Orokorrean horrela azalduz. Erabakia botoen bi herenen gehiengo kalifikatuarekin hartuko da.
- Bertze elkarte bat edo batzuekin bat egin duelako edo bertze elkarte batek xurgatu duelako.
- Legez ezarritako gutxieneko bazkide kopururik ez dagoelako.
- Epai irmo batek elkartea desegitea agintzen duelako.
- Elkartearen helburuak betetzea ezinezkoa delako.

CAPÍTULO QUINTO
LA MODIFICACIÓN DE ESTATUTOS

Artículo 34.- Una vez redactada la propuesta de modificación y aprobada por la Junta Directiva, está acordará incluirla en el Orden del Día de la próxima Asamblea General que se celebre.

Artículo 35.- Se podrán formular enmiendas individualmente o colectivamente, se harán por escrito y contendrán la alternativa de otro texto. Tras la votación de las enmiendas, la Asamblea General adoptará el Acuerdo de modificación estatutaria.

Artículo 36.- La modificación de los Estatutos habrá de aprobarse en Asamblea General y solo producirá efectos ante terceros desde que se haya procedido a su inscripción en el Registro General de Asociaciones.

CAPÍTULO SEXTO
LA DISOLUCIÓN DE LA ASOCIACIÓN Y LA APLICACIÓN DEL PATRIMONIO SOCIAL

Artículo 37.- La Asociación se disolverá por los siguientes motivos:

- Por voluntad de las/os socias/os, expresada en Asamblea General. El acuerdo se adoptará por mayoría cualificada de dos tercios de los votos.
- Por la fusión o absorción con otras asociaciones.
- Por la falta del número mínimo de personas asociadas legalmente establecido.
- Por sentencia judicial firme en la que se acuerda la disolución.
- Por la imposibilidad de cumplimiento de los fines de la asociación.

38. artikulua.- Elkartea deseginez gero, horixe erabakitzen duen Batzar Orokorrak Batzorde Likidatzaile bat izendatuko du, Zuzendaritza Batzordeko hiru kidek osatua, eta hark, dauden funtsak bere gain hartuko ditu.

Bazkideekiko eta hirugarrenekiko betebehar sozialak bete ondoren, geratzen den ondare soziala, geratzen bada, irabazi asmorik gabeko erakunde bati emateko edo Batzarrak zehaztutako irabazi asmorik gabeko xede baterako erabiliko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Estatutu hauek indargabetu eta ordezkatu egiten dituzte Batzar Orokorrak 2016ko irailaren 17an onartu zituenak.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek Batzar Orokorrean onartzen diren egunean sartuko dira indarrean.

Artículo 38.- En caso de disolverse la Asociación, la Asamblea General que acuerde la disolución, nombrará una Comisión Liquidadora compuesta por tres miembros de la Junta Directiva, la cual se hará cargo de los fondos que existan.

Una vez satisfechas las obligaciones sociales frente a las/os socias/os y frente a terceras personas, el patrimonio social sobrante, si lo hubiere, será entregado a una entidad sin ánimo de lucro o para los fines sin ánimo de lucro que la Asamblea hubiese determinado.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Estos Estatutos derogan y sustituyen a los anteriores, aprobados por Asamblea General el 17 de septiembre de 2016.

DISPOSICIÓN FINAL

Los presentes Estatutos entrarán en vigor el día de su aprobación en Asamblea General.

EGINBIDEA:

Arkaitz Delgado Tobias jaunak, Estatutu hauek aipatutako Elkarteko Idazkariak, ZIURTATZEN DU: estatutu hauek idatzita gelditu direla 2019ko otsailaren 16ean egindako Batzar Orokorrean bildutako kideek onartutakoaren arabera.

Iruñean, 2019ko maiatzaren 29ean"

Sinadurak:

Arkaitz Delgado Tobias (Idazkaria)

Idoia Sobrino López (Lehendakaria)

DILIGENCIA:

"D. Arkaitz Delgado Tobias, Secretario de la Asociación a que se refieren estos Estatutos, CERTIFICA: que los presentes Estatutos han quedado redactados conforme a lo acordado por la Asamblea General de personas asociadas de fecha 16 de febrero de 2019.

En Iruñea- Pamplona, a 29 de mayo de 2019"

Firmas:

Arkaitz Delgado Tobias (Secretario)

Idoia Sobrino López (Presidenta)